

PRENTSA-DEIALDIA

Gasteizko tokiko saltokiek prestakuntza jaso dute ordaintzeko bide digital berrietan, *online* salmenta gero eta handiagoari aurre egiteko

Jardunaldian hurbileko merkataritzaren joera berriez eta egokitzeko benetan izandako esperientziez ere hitz egingo da

Gasteiz On elkarteak eta Kutxabankek, bi erakundeek duten hitzarmenaren esparruan, merkataritzaren omnikanalitateari eta ordaintzeko bideei buruzko jardunaldi bat antolatu dute, Gasteizko tokiko saltokien arduradunei bideratua. Urtebetean konfinamendu-egoeran egotearen eta erosketa-ohitura berriak sortzearen ondorioz tokiko saltokiek izandako premiei erantzuteko eratu zen ekimena; izan ere, *online* ordaintzeko metodoak erronka bihurtu dira sektorerako. Funtsezkoa izan da *online* ordainketa krisi honetan eta, zalantzarik gabe, gero eta protagonismo handiagoa izango du.

Inés Monguilot Kutxabankeko marketin-zuzendariak ordainketa digitalen munduko joera berriak aztertuko ditu, baita bezero eta saltokietarako baliabideak ere. Hitzaldian azalduko duenez, «Krisi honekin, izugarri bizkortu dira digitalizazioa eta eskudiruaren murrizketa, eta beste joera batzuk ere areagotu dira, hala nola mugikor bidezko ordainketak, Bizum, *contactless* eta *e-commerce*aren bultzada».

Halaber, Kutxabankek bezeroei nola aurrez aurre hala *e-commerce* bidez kobratzeko eskaintzen dizkien irtenbideak azalduko dizkie merkatariei; irtenbide horiek ez dira *marketplace* bat duten merkatarientzat soilik, baizik eta webgunerik ere ez dutenentzat ere bai, ordainketa berri bizkor eta segurueterako irtenbideak bilatze aldera betiere.

Monguiloten hitzaldiaren ostean, Celestino Martínez aholkulariak tokiko saltokien 2021eko ibilbide-orriaz hitz egingo du. Martínezen hitzaldiak hurbileko saltokiei gehien eragiten dieten jarraibideak berrikusiko ditu, pandemia garaian kontsumitzeko joera berriak eta jarraibide horietako bakoitzerako, marken eta produktuen eskaintza, erosketa-esperientzia eta komunikazio digitala hobetzeko ekintzak gomendatuko dira, betiere benetako azterlanetan oinarrituta.

Lekua eta Ordua:

Vital Fundazioa Kulturunea (Dendaraba merkataritza-gunea)

Ostegunean, apirilaren 22an

14:30etan

Gasteiz, 2021eko apirilaren 20an